

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**



KAZETARITZA GRADUA

IKASTURTEA 2017-2018

**Erreportaje sakona**

# Txikitik aniztasuna eraikitzen

EGILEA: Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria

ZUZENDARIA: Irati Agirreazkuenaga Onaindia

2018ko maiatzaren 31a

## AURKIBIDEA

|   |           |
|---|-----------|
| <b>Erreportajea.....</b>                            | <b>3</b>  |
| <b>Zatidurak.....</b>                               | <b>20</b> |
| Glosarioa – Errealitate anitza ezagutzeko gida..... | 20        |
| Gasteizko Manifestua .....                          | 21        |
| Kolare guztietako Euskal Herri baten heztea.....    | 23        |
| Analisia puntuka .....                              | 25        |

## 1. Erreportajea

# Txikitik aniztasuna eraikitzen

Miribillako Eskola publikoak 13 urte daramatza bertako zein jatorri etorkineko haurrak euskalduntasunean hezten. Jatorri marokoar, errumaniar, boliviar, senegaldar, saharar edota nigeriarra duten ikasleen %55ak Haur Hezkuntza D ereduan hasi eta eredu berean jarraitzen ditu ikasketak eskola honetan

Amaia RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

Hamabi etnia, hogeita bat herrialde, zazpi sinesmen eta hamaika hizkuntza batzen dituen lekua da Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia). Bihotza kolore beltz, gorri, zuri, hori zein morea duten ikasle, irakasle eta familien elkargunea. Gizartean entzun ohi ditugun aurreiritzi guztiak albo batera utzi, eta egoerari buelta emateko prest dagoen komunitatea. Beltzetik, gorritik, horitik eta moretik euskalduntzen ari direnak. Euskal komunitatearen barnean ernaltzen ari diren ehunka hazi. Euskal lurraren hezetasuna eta gatz maila ezezagunak izanik ere euskarak dituen hitz joko eta esamoldetan murgiltzeko prest direnak.

### 08:50 | Patioa

Udaberri euskaldunean zerua triste dago. Badirudi oraindik aurtengo neguak botatzeko zituen malko guztiak ez dituela irauli. Bilboko Miribilla eskolako patioan, ordea, bestelakoa da egoera. Hemen umeak euskal jatorrikoak zein marokoarrak izan, ez dira ordenatzen doazen zenbaki neurtu eta ezagunak, baizik eta euren kolorea mantenduz komunitate euskaldun baten parte bihurtzen ari diren izaki neurgaitz, ezezagun eta bizidunak.

Lehen ume eta gurasoak gerturatzen hasiak dira jada, indartsu datozela dirudi. Hamar minutu falta dira txirrinak jo dezan. Begirada azkar batean jatorri desberdinetako umeak direla dirudi, nahiz eta balitekeen eurak hemen jaiok izatea. Gurasoei dagokienean, berriz, emakumezkoak dira gehienak eta euretariko askok zapia daramate buruan.

Darabilten hizkuntzak ere ez digu jatorriari buruzko informazio gehiegirik erantsiko. Ume gehienak gazteleraz ari dira, elkarki baloia pasatzeko eskatuz; gurasoak, berriz, bestelako erdaretan ari dira, beharbada Bilbon ofizialak diren bi hizkuntzetatik at bizi

diren beste ehun mintzairerako batean; edonola ere euskaldun hiru eledun bati identifikagaitza zaion hizkuntzan.

### **09:00 | Txirrina, zorrotza eta errepikakorra**

Kanpoko patioan zeuden umeak aztoratu egin dira. Atezain zein irakasleek eskolako atek zabaldu eta bertako jangelan gosaltzen zeuden ikasleekin elkartu dira kanpoaldean zeuden gaztetxoak. Hezkuntza proiektuaren baitan, egunero eskaintzen ditu gosariak Miribillako eskola honek. Doakoak dira, ikasle guztientzat. Goizean goiz bertan agertzea nahikoa da eguna indartsu hasteko.

Guraso eta irakasleek ere elkar ezagutzen dute, umeak eskutik helduta eskolan sartu ahala, hura edo bestea kontatzen diote elkarri. Gaztelera darabilte komunikatzeko, baina bada euskaraz hitz egiten duen gurasorik ere; mendebaldeko euskalkian egiten dute berba. Sartu dira ikasgelara. Gurasoak agurtuta, irakasle eta ikasleek osotutako ezagutza eta bizipenez osotutako hezkuntzaren trenera igo gara.

### **09:10 | Lehenengo maila, txokoak batu eta bertakotu**

Ateak ireki, ikasgelara sartu eta lehen begiradan xurgatu daiteke begien aurrean paratzen zaigun errealitatea. Zenbait jatorri, hainbat hizkuntza eta sinesmen ugari dituzten umeak galdezka.

Miribillako eskola publikoa Bizkaiko hiriburuko Ibaiondo barrutian kokatuta dagoen ikastetxea dugu, Bilbo zaharra eta San Frantzisko auzoen artean. Eskolaren sorreraren lehen zantzuak San Frantzisko eta Zabala auzoetan aurki genitzake, garai haietan Miribilla auzoa ez baitzen existitzen. 2004. urtean San Frantzisko auzoko eskola zaharra Zabalakoarekin elkartu, eta San Frantzisko – Zabala eskola izatera pasatu zen; urte bat beranduago, 2005ean, ordea, Miribilla eskola izenpean bataiatu zuten (noski, erlijio kristaua albo batera utziz).

“Bi eskolen batzeak izaera politikoa izan zuen, erdal hiztun guztiak eraikin honetan sartu nahi izan zituzten”, dio Enrique Castelok. Hogeita hamahiru urtean irakaskuntzan lanean diharduen bilbotarra da Castelo; bi eskolen batzea bizi izan zuen eta gaur egun ere Miribilla eskolan ari da lanean. Garai hartan irakasleek erabakiaren aurka egin arren, ez zutela ezer ere lortu adierazi du, goi karguek erabakitakoarekin aurrera egitea erabaki zutela gaineratuz.

“Hasierako urteak gatazkatsuak izan ziren”, adierazi du Castelok, ijito komunitatekoen artean zeuden desberdintasunen ondorioz sortzen ziren arazoak oinarri hartuz nagusiki. Izan ere, historikoki San Frantzisko auzoa ijitoen bizileku izan da (Martinez eta Gomez, 2012) . Hala ere, urteek aurrera egin ahala egoerak hobera egin duela aitortu du urteetako esperientzia duen irakasleak, ijito komunitateko ikasleez gain, hainbat jatorritako ikasleak matrikulatzen hasi direla nabarmenduz.

Azken urteotako immigrazio mugimenduak direla eta, hainbat etorkinen bizileku bihurtu den auzoa da San Frantzisko, jada auzoan bizi ziren bertako familia euskaldun eta ijito komunitateko kideekin elkartuz. Bertako kaleetatik paseatzea bezalakorik ez da auzo batean aurki daitekeen aniztasuna zein den ezagutzeko. Kolore, usain, ahots eta bizi-ohitura desberdinak.

Maria Martinez eta David Gomez Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariek Ibaiondo barrutiko eskolen egoeraren mapa sortu dute 2012.urtean egindako ikerketa abiapuntu. *Intercultural policies in a multicultural neighbourhood: experiences in three primary schools in San Francisco, Bilbao* azterlanean ikasleen jatorriaren arabera banatutako hiru eskola izan zituzten oinarri. Bertan azaltzen dutenez, Mujika-Solokoetxe eskolako ikasleriaren gehiengoa etorkina da; hain zuzen ere, hego-amerikar jatorria dutenak. Maestro García Rivero ikastetxean, berriz, ijito komunitateko zein etorkinak egon arren, matrikulazio gehienak bertako familienak direla zioten ikerketan. Miribilla eskolan, beste jatorri batzuetako etorkinekin batera, ijito komunitateko ikasleek osatzen dute gehiengoa euren hitzetan.

Eskola krisialdian dagoen instituzioa dela, eta honek eskolaren helburu orokorra den gizartearen eraikuntzan eragin zuzena duela aipatzen zuten Martínez eta Gomezek oraindik gaurkotasuna mantentzen duen ikerketan. Amelia Barquin (Bilbo, 1965), Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle doktorea ere bat dator. Bere hitzetan gaur egun hiri eta herri handietan – non eskola bat baino gehiago dauden, eskola bakarra baldin badago, ez dago arazorik, guztiak biltzen baitira bertan – eskola eremuetan bizi diren krisi gehienak, eskolako komunitateak klase sozial eta jatorriaren arabera aukeratuak izatea dakar. “Klasismoa edo elitismoa aipatuko nituzke arrazoi nagusienetako gisa; edo bestela, gaur egun erabiltzen den aporofobia”; azken hori Adela Cortina filosofoak asmatutako kontzeptua da, pobreenganako fobia adieraziko lukeena. “Ez da hainbeste atzerritarrenganako fobia,

xenofobia edo arrazakeria ere badiren arren, baizik eta pobreenganako fobia. Etorri diren pertsonak gizartean, beheko geruza sozialean daude”, gaineratzen du Barquin-ek. Testuinguru honetan segregazioa areagotzen doan arazo gisa identifikatzen du irakasleak; “Gasteizen, esaterako, segregazio izugarria dago, baina ez dago auzo bakar bat ere etorkinen kopurua %18 baino altuagoa denik. Beraz ikastetxe batean etorkinen kopurua %60 baldin bada, zerbait gertatzen da”.

Bidaia honetako erdigune dugun Miribilla eskolak ere antzeko egoera bizi du. Euskal Herritik zein Estatu espainoletik etorritako ijito komunitateak osatzen du ikastetxearen ikasleriaren gehiengoa (%43,14), Errumaniako ijito komunitatearekin (%8,06) lotuz gero, erdia baino zertxobait gehiago izatera iristen direlarik. Kopuruei jarraiki Maroko (%13,30), Aljeria (%5,64), Bolivia (%4,83), Nigeria (%4,03) eta Ginea (%3,62) dira eskola honetan ikasleen gehiengoaren jatorrizko herrialdeak. Afrikarrak eta Hego Amerikarrak dira, beraz, gehienak; hala ere, bada Asia edota Europatik etorritako ikasleren bat ere. Besteak beste, Bangladesh (%0,4) eta Portugaletik (%0,4) immigratutako familien seme – alabak. Euskaldunen kopurua %3,22koa da.

*Ikuspegi*-k, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, argitaraturiko azken datuei erreparatuz gero, 2017. urtean Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) etorritako immigranteen gehiengoak jatorri marokoarra zuen; 21.345 marokoar zehazki, gehiengoa, gizonezkoa. Kolonbiar eta errumaniar jatorriko pertsonak egongo lirateke bigarren eta hirugarren tokietan, azken hiru urteotan errepikatu diren datuei jarraipena emanez. Bilbo hiriko datuei dagokienean, berriz, kolonbiar jatorria duten etorkinen kopuruak dira altuenak, boliviarrak eta marokoarrek jarraiki (Ikuspegi, 2017).

Miribillako eskolako ikasleen jatorriak eta azken urteotako immigrazioen datuek lotura zuzena dute. Ikasleen matrikulazio kopurua eta jatorria oinarri hartuta, hirutik bi dira Bilbora immigratu duten etorkin kopuru handienetako kolektiboen parte; hain zuzen ere, marokoarrak eta boliviarrak. Ikasgelako kortxoeko zoruan, borobilean eserita daudenean, ordea, guztiak mundutarrak dira. “Nire lagun mina da hau”, dio ijito komunitateko ume batek familia euskaldun baten hegalpean jaio eta hazitako beste bat gogor besarkatzen duen bitartean.

## **Arbelen marka**

Lehenengo mailan, umeeek sei urte dituztenean, arduradun bat izaten dute egunero. Zerrendako postuaren arabera, ikasle bat edo bestea izango da arduraduna, egunero aldatzen baita. Goizean goiz zeregin batzuk izaten ditu, autonomia maila handiagoa eskuratu ahala, ikasle bakoitzak gauzak bere kasa egiten ikas ditzan. “Ikasleek, oro har, autonomia falta handia dute, ia beti dute norbaiten beharra; gainera, arreta falta ere nabaria da”, azaldu du Aintzane Rojo gelako irakasleak. Hori dela eta, ardurak zehazten dizkiete ikasleei. Bertaratzea, eguraldia eta jangelako menua (gaurkoan garbantzuak, txahal gisatua eta fruta; hala ere, jantokian bada menu begetarianoa eta txahal gabekoa hautatzeko aukera ere) zein den esan eta errotuladore punta lodiz arbelean gaurko eguna idazten hasten dute eskola. Arduraduna ahalik eta txukunen saiatzen da idazten, ia ikusi ere egiten ez den letra ñimiñoa erabiliz.

Haur Hezkuntzan bezalaxe, aurten Lehen Hezkuntzan ere txokoetan banatzeko hautua egin dutela dio Izaskun Alonso eskolako zuzendariak. Txoko bakoitzean gai jakin bateko arlo zehatz bat lantzen dute. Esaterako, matematikako orduan txoko batean zenbakikuntza egingo dute, beste batean logika eta azkenekoan neurriak. Hiru edo lau kidez osatutako taldeak izaten dira, egun bakoitzean txokoz aldatzen direnak. Taldeak orekatuak izaten saiatzen direla nabarmendu du Rojok, klasean maila akademiko oso desberdina duten ikasleak daudelako.

Txokoak ikasgelaren erdialdean daude kokatuta. Guztira lau mahai. Ikasgelaren albo batean berriz, liburutegia, irakurmenari garrantzi handia ematen baitiote. Laguntzaile bat ere izaten dute irakurmena lantzeko: ikasle bakoitza hamar minutuz klasetik atera eta euskaraz ipuin bat irakurtzen du irakaslearekin batera. “Irakurmena landu egin behar da, hogeita lau nazionalitate batzen diren eskola batean, non bakoitzak maila oso desberdina dakarren, oztopoa izan daitekeelako”, azaldu du Alonsok. Hori dela eta, laguntzaileaz gain, badira beste programa batzuk ere. Esaterako, bosgarren eta seigarren mailako ikasleak mailaz–maila gaztetxoagoengana joaten dira, elkarrekin ipuin bat irakurtzeko helburuz. Beraz, irakasleak ez ezik, ikasleak ere laguntzaile bihurtzen dira.

Klasearen aurrealdean arbel zuri eta erraldoia dago. Kartel ugari ditu inguruan, kolore desberdinetakoak, baina bada guztien gainetik nabarmentzen den bat. Arauak idatzita ditu arrosa kolore bizia duen kartel honek: gelan formal egongo gara, lagunak errespetatuko ditugu eta tonu egokian hitz egingo dugu. Atzealdean, aurrealdeko

arbelarekin kontrastatuz, arbel digitala dago, aurrerapenaren metafora gisara. “Ikasgeletan ordenagailu eta pantaila digitalekin lan ugari egiten ditugu, ohikoa da teknologia erabiltzea lanerako, esku liburuen osagarri gisa”, dio Castelok teknologia tresna baliagarria dela gaineratuz.

Gaurkoan, ordea, ordenagailuak albo batera utzi eta arkatza izango dute bidelagun ikasleek. Hizkuntza eta matematika landuko dituzte; beraz, arkatza, borragoma eta txorroskiloa hartu eta lanera. Arraina, flana, gona, elefantea, klinika, mamua, ibaia eta zazpi dira gaurko diktaketako protagonistak. Irakasleak hitzak esan ahala, ikasleak ziztu bizian saiatzen dira idazten; hala ere, bada zertxobait gehiago kostatzen zaionik ere, oraindik euskara ez baitute gertuko hizkuntza. “Gogoratu, taldeko lana da, guztiok amaitu arte ez da lana bukatzen”, gogorarazten die Rojok.

### **D eredia giltzarri**

Sei urte dituzten ikasle hauek euren artean euskaraz hitz egiten duten arren, asko kostatzen zaie esaldi osatuak eratzea. Hizkuntza eta komunikazioa menperatzeko zenbait urte behar direla diote adituek. “Patioan jolasteko eta lagun arteko komunikazioa menperatzeko sei hilabete eta bi urte artean behar izaten dira; eskolako hizkuntza ikasteko, berriz, bost eta zazpi urte artean”, dio Barquinek. Hori dela eta, pazientzia izatea beharrezkoa dela nabarmentzen du, oinarrizkoena umea ahalegin handiak egiten ari dela jakitea dela azalduz.

**Amelia Barquin: “Pazientzia izatea beharrezkoa da, oinarrizkoena umea ahalegin handiak egiten ari dela jakitea da”**

Euskal Herrian Euskaraz-ek Aztiker soziologia ikergunearekin elkarlanean, *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983 – 2016)* txostena argitaratu du 2018. urteko otsailean. Ikasleen euskalduntzea du oinarri ikerketak. Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea eta 138 / 1983 Dekretua onartu ostean, atxikimendu handia zegoen eskolaren bidez umeak euskalduntzeko, gizartearen eskaerari erantzuna emanaz. Garai hartako borrokek emaitza positiboak eman zituzten, D eredia indartzea eraginez. Datuek gaur egun ere positiboak izaten jarraitzen dute, D eredia baita nagusi Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ia gehienetan. Hala ere, badira kezkarriak suerta



daitezkeen datuak ere. Izan ere, Euskal Herrian Euskaraz eta Aztiker-ek ondorioztatu dutenez, A ereduari matrikulatuta dauden ikasleen gehiengoak jatorri ez euskalduna eta etorkina duten familietan jaiotakoak dira. Txosten hori oinarri, *Ikasleen erdiak, euskaldundu gabe* erreportajea argitaratu zuen Garikoitz Goikoetxea *Berria* egunkariko kazetariak, Euskal Autonomia Erkidegoan eskolara joandako erdiek euskaraz jakin eta ia erdiek ez dakitenaren ideia indartuz.

Datuok oinarri, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua den Cristina Uriartek hezkuntza lege berria izan zuen hizpide Euskadi Irratian egindako elkarrizketan 2018ko otsailaren 6an. Lege berriaren baitan, derrigorrezko eskolaldia amaitzean ikasleek euskarazko B2 maila izango dute, eta honek EAEko komunitateko edozein jatorritako ikasleen euskarazko matrikulazioaren areagotzea eragingo duelakoan daude Jaurlaritzatik. Finean, euskara sozialki balioztatua izateko aurrerapausoak direla pentsa daiteke, eta batik bat behar gehienez daudenentzat, beheko geruzetatik erdi mailakoetara igotzeko kapital soziala.

Azken hogeita hamahiru urteotan, nahiz eta A ereduari oraindik ere zutik mantendu, egoera nabarmen aldatu da. 1983-1984ko ikasturtean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bost ikasletatik lau gaztelaniazko ereduari zeuden eskolatuta. Gaur egun bost ikasletik bat besterik ez da A ereduari ikastean. Euskalduntze prozesuari aurrerapena egon badagoela dirudi. “Euskara aurrerapen sozialerako giltza da”, azaltzen du Amelia Barquinek *Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan* izenburupeko Jakin aldizkariako artikuluan. Miribilla eskolan ere euskararen aldeko apustua egin dute, D ereduaren aldeko hautuarekin. “Klaustroan urtetik urtera A ereduari ixten joatearen aldeko erabakia hartu genuen; beraz, bospasei kurtso barru soilik D ereduari egongo da”, azaldu du Castelo irakasleak. Erabaki honen baitan gurasoek ere parte-hartzea dutela dio eskolako zuzendari Izaskun Alonsok. Izan ere, guraso gehienek D ereduaren alde egin dutela aipatzen du; “niri ere harrigarria iruditu zait” gaineratu du.

Baina horrela da, Elixabete Garcia bezalako gurasoek argi dute; “euskara eskolan ondo zaintzen duten ondarea da, lurraren errailetatik lantzen dutena”. Miribilla eskolako Guraso Batzordeko kidea da Garcia, eta nahiz eta euskaraz soilik hitz bakan batzuk jakin, argi izan du betidanik bere seme-alabak euskaraz ikasiko zutela. Esan eta egin. Hala ere, badira oraindik beldurra sentitzen duten gurasoak ere. Tavita Cortes Bilboko Otxarkoaga auzoan jaiotako emakumea da, Guraso Batzordeko kidea. San Frantzisko

auzora lekualdatu zenean bere semea D ereduan hasi zen ikasten Haur Hezkuntzan, Miribillako eskolan. “Nire intentzioa semeak Haur Hezkuntza amaitutakoan, D ereduan matrikulatzea zen”; hala ere, azkenean beldurtu eta A ereduan matrikulatzea erabaki zuen, “lapsus bat izan nuen”. Erabakiak erabaki, ordea, eskolak egiten duen lana goraiatzekoa dela dio.

**Elixabete Garcia: “Euskara eskolan ondo zaintzen duten ondarea da, lurraren erraietatik lantzen dutena”.**

“D eredukoekin eskolan denbora guztian hitz egiten dugu euskaraz, nahiz eta ikasturte hasieran zaila izaten den”, aitortzen du Izaskun Alonsok. Udako oporren ostean, etxetik iritsi berritan eta hilabeteetan euren ama hizkuntzan hitz egiten egon ostean, berriz ere euskarara moldatzea kostatzen zaie ikasleei. Hala ere, urtariletik aurrera euskara gertu edukitzera ohitzen dira, eta ez dute arazorik izaten hura erabiltzeko. D eredukoekin ez ezik, A eredukoekin ere euskara lantzen dute ikastetxean. “Klaseak A ereduan ematen diren ikasgeletan ere, euskarara gerturatzeko dinamikak egiten dira; esaterako, astero esaldi bat ikasten dugu hizkuntzara gerturatzen has daitezen”, dio Castelok, A ereduko irakasle denak. Euskaldunon hizkuntza bi ereduetan lantzeaz gain, hainbat proiektu gauzatzen dituzte ikasturte osoan zehar ikasleak zein eskolako gainontzeko komunitateko kideak euskarara gerturatzen saiatzeko. “Euskara eta bestelako proiektuak batzen ditugu, ezagutza eta erabilera handiagoa bilakatuz”, dio Olatz Malaxetxeberriak. Guraso Batzordeko bospasei kideen artean, euskal hiztun bakarra da bera.

Aurrera eramandako proiektuen artean, *11 Kolore* eragilearekin elkarlanean eginikoa da berrienetarikoa. Gizartean dagoen jatorri aniztasunaren inguruan hausnartu eta eztabaida sustatzeko asmoarekin jaio zen herri ekimena da *11 Kolore*. Euskal kulturari zein euskal gizarteari egin dakioken ekarpena dute abiapuntutzat bertako kideek. “Bat baino bi kolore, askoz hobe! Hiru badira hobe, askoz hobe! Beltz, gorri, hori, more... askoz hobe! Mila badira hobe, askoz hobe!”, dio Oreka TX musika taldeak Aniztasunaren egunerako propio sortu zuen abestiak. “*11 Kolore*-k asko batu gintuen, eta gainera, musika eta euskara elkarlotu zituen, oso garrantzitsuak diren bi gauza”, adierazi du ilusioz Garciak, Guraso Batzordeko kideak. Castelo irakasleak ere esperientzia

positibotzat du ekimena, integrazioaren alde egiten duen eragilea eskolan dagoen aniztasuna batzeko tresna izugarria dela esanez.

“Esperientzia oso positiboa izan zen, eskolako komunitatea osatzen dugun guztiok elkar ezagutzeko aukera paregabea”, gaineratzen du eskolako zuzendariak, gainontzekoen errealitatea ezagutzea baino gauza hoberik ez dagoela gaineratuz. Izan ere, patioetan zein jantoki orduetan entseatzen zuten parte hartzaile guztiak batera, elkar ezagutzeko aukera sortuz.

### **11:00 | Txirrina, zoramena eta gozamena**

Ume guztiak gela barruan korrika hasi dira. Materiala azkar-azkar jaso, jolasteko irrikaz. Hamaiketako hartu, berokia besapean sartu, eta gainontzeko ikaskideekin patiora joateko ilara batean jarri dira lasterka. Prest daude.

“Irakasle hori nire arrebaren andereñoa da”, dio bustidurarik gabeko euskara zuzen eta garbian ume batek gurutzatu berri duen irakasleari besarkada eman ostean. Izaskun Alonsok dioen eran, eskola honetan dagoen saririk onena besarkada da. Bat edo beste eskolako korridoreetan galduta dabil, lagunari hau edo bestea ahaztu zaiola esanaz, edo besterik gabe, paretan itsatsita dauden proiektuetako bati begira.

### **11:05 | Patioa, zabala eta anitza**

Umeak elkarrekin dabilta jolasean. Batzuk albo batetik bestera korrika. Beste batzuk, berriz, lasai daude eskola barnean, elkarri ogitartekoan zer duten jateko galdezka. Badira janaria konpartitzen dutenak ere. Tori batidoa zuretzako eta ogitartekoa niretzako. On egin.

Ijito komunitateko ikasleek osoturiko taldetxoa patioaren albo batean kokatu da. Abesten dabilta, eskuekin txaloak jotzen dituzten bitartean. Identitatea erreproduzitzen, zabaltzen, elkarbanatzen. Jatorri senegaldarreko ume bat hurbildu zaie. Jatorri eta adina kontuan izan gabe, batera dabilta kantu eta jolasean. “Eurek ez dute kontuan hartzen bata edo bestea zein erlijiotakoa den, umeak dira eta umeek bezala jokatzen dute”, dio Arantza Barturennek. Heziketa fisikoko irakaslea den arren, azken urteotan jantokiko arduradun gisa aritu da. Integraziorako bidean Miribilla eskolaren lan eraikitzailea positibotzat jotzen du. Egoerarik gogorrenak ikasturte hasieran bizi ohi dituztela aipatzen du, “eskola oihan basatia bihurtzen da”. Ume bakoitzak etxean zer nolako

errealitatea izan, halako jarrera izango du patioan, eta hori kontuan eduki behar dela gaineratzen du Barturenek, frustrazio edo poztasun guztiak patioan islatzen dituztela esanez. Barne gatazkak ez ezik, ikasleen artean egon daitezkeen ika–mikei ere adi egon behar dute. Ikasleren bati eskua gainean jarri bezain laster, gatazka bertan pizten zela aipatu du. Egoerak, ordea, eboluzio positiboa izan duela errepikatu du, edozein ikastetxeetan gerta daitezkeen arazo berberak direla azpimarratuz. Halere, emozionalki ezegonkor ikusten dituzten umeak identifikatzen saiatzen dira, ahal den neurrian, laguntza berezia eskaintzeko.

**Arantza Barturen: “Eurek ez dute kontuan hartzen bata edo bestea zein erlijiotakoa den, umeak dira eta umeek bezala jokatzeko dute”**

Jarduerek ere ume bakoitzaren egoera bideratzen laguntzen dutela gaineratzen du irakasleak. Jantoki orduan hainbat jarduera egiten dituzte. Irakasleek eskainitako ludoteka eta plastikako tailerrak ez ezik, norberaren burua hobeto ezagutzeko tailer emozionalak eta musika terapiak ere egiten dituzte. “Musika asko erabiltzen dugun tresna da, asko askatzen baitira”, adierazi du Barturenek. Psiko gelara ere joaten omen dira batzuetan umeren batekin, barruan gorderik dituzten sentimenduak askatu ahal izateko.

### **11:30 | Txirrina, hasperena eta ikasgelara buelta**

Badirudi patioan dauden ikasleek ez daukatela klasera joateko batere gogorik. Irakasleek, ordea, ikasgeletara joateko esaten diete, nahiz eta eurak ere seguruenetik gustura geratuko lirartekeen kanpoko haize freskoaz gozatzen.

Ikasle guztiak, lehen mailatik seigarren mailara arte, eskolara sartzea lortu eta gorantz doaz bata bestearen atzetik, lagunekin eta irakasleekin hitz egiten, ondorengo orduetan zer egin behar duten galdezka. Bada despistatu eta lurrera erortzen den ikasleren bat ere. Di-da batean jaiki eta berriz ere aurrerantz.

### **11:40 | Bosgarren maila, elkarrekin bizi eta harremanetan hazi**

Aldaketa nabaria da lehenengo mailatik bosgarrenera. Nagusiagoak, hamar eta hamaika urte bitartekoak, eta zalapartatsuagoak dira klasean dauden gaztetxoak. Hamabi ikasle

guztira. Gelaren erdigunean irakaslearen mahaia dago, U hizkiaren forma osatzen duten ikasleen mahaitxoez inguratuta. Paretetan eskegita hainbat gaiei buruzko eskemak, marrazkiak eta bestelako azalpenak. Hemen ere bada liburutegi txiki bat eta apalez osatutako altzaria, norberak bere lanak bertan gorde ditzan. Euskarazko hiztegi ugazuriz beteta dagoen tiradera ere badago, euskara formatik edukira igaro denaren seinale. Irakasleak mahaietan esertzeko esan eta hasi da paper galduen festa. Altxorraren bila jolasa bera baino konplexuagoa dirudi egin beharreko fitxak aurkitzea. “Begiratu tiraderatxoetan, apaletan eta mahai azpiko karpitetan”, aholkatzen die D ereduko bosgarren maila honen tutore den Mari Luz Benitezek.

Lehenengo mailan ez bezala, hemen jada ez daude txokoetan banatuta. Norberak bere lanak egin ohi ditu, hausnarketara bideratutakoak. Horrez gain, guztien artean egindako proiektuei ere garrantzia handia ematen dietela dio Benitezek, elkarren artean lan egiten ikas dezaten, elkar lagunduz. Egun bakoitzean ikasgai desberdinak dituzte eta ordu bakoitzean gauza berri bat lantzen dute. Matematika, hizkuntza, gizarte, natur zientziak, etika eta plastika dira lantzen dituzten arloetako batzuk, eta lanketa bakoitzak, bere araua du. Baina arauak jarraitzeko arazoak izan ohi dituzte hainbat ikaslek; “entzuna da ijito kopuru handiak dituzten eskoletan, arauak euren bizi ohituretara moldatzeko zailtasunak dituztela eta horrek hainbat gatazka sortzen ditu” dio Izaskun Alonsok. Miribillako eskolan %43ak osatzen du talde hori, baina gainontzekoak ez; gainontzekoan euskal jatorrikoak, Maroko, Aljeria, Ginea, Sahara, Kongo, Txina, Brasil, Bangladesh, Paraguay, Honduras, Nikaragua edo Portugalen jatorria duten ikasleak izan daitezke. Denbora tarte laburrean ijito familia eta ikasleak eskolan bizi zuten errealitate anitzarekin identifikatu eta arauekin seguruago sentitzera iritsi direla gaineratu du zuzendariak. Gainera, eskolan badute arauak errespetatzeko martxan jarri duten dinamika: ClassDojo. Ordenagailuko programa honetan ikasle bakoitzak pertsonaia bat sortzen du. Euretariko bakoitzak puntuazio bat du, klasean izan duen jarreraren arabera egokitzen zaiona. Besteak beste, besteekiko errespetua, parte hartzea edota talde lana puntuatzen dira bertan. Euskara hitz egitea da, ordea, puntuazio maila altuena duena.

“Ikasleak ezin ditugu guztiz behartu euskaraz hitz egitera, inposaketa bat lez sentituko bailukete”, nabarmentzen du Rojo irakasleak; baina lehen euskarak eta klaseko jarrerak pareko puntuazioa bazuten ere, ClassDojo programan irakasleek puntuazioa aldatzea erabaki zutenetik, ikasleak sarriago animatzen dira euskaraz hitz egitera.

Zereginak amaitu ahala, lehenengo mailan bezalaxe, hemen ere irakasleak elkarri laguntzeko aholkatzen die; baita egin ere. “Zaporea du eta elastikoa da; beraz, zer izango da?”, galdetzen dio Yasinek, jatorri marokoarra duen, baina familia euskalduneari hazi den ikasleak, Jose Eduardo jatorri boliviarrereko ikasleari. Materialak landuz harremanak egiten dituzte, baina harreman hauetatik ihesi ateratzen dituzte hain zuzen familia euskaldunetako gurasoek euren seme-alabak Miribillako perfila jarraitzen duten zentroetatik. “Umearen kapital soziala eskolan egingo dituen harremanen arabera lehertzen denaren ideia edo intuizioa egongo litzateke guraso askoren eskola aukeraketaren azpian, nahiz eta guztiek ez duten oso garbi euren erabakiaren zergatia” azaltzen du Amelia Barquin-ek, aurretik aipatutako aporofobia terminoarekin lotuz. Erabakietan eragina duen faktorea dela uste du, baina gehien bat, elitismoarekin zerikusia duena. “Batzuetan kolorea bera ere, beltza edo beltzarana izatea, ez da gizartean asko estimatzen den ezaugarri bat, pobrea izatearekin lotzen dugulako. Ikastetxe ingelesak, adibidez, garestiak dira eta bertara joaten direnek maila sozioekonomiko altua dute”; beltzak edo latinoak direnak doaz, baina esparru horretan diruak, nolabait, guztiak berdintzen ditu. “Dirua duten heinean, besteek ez dute sentitzen beltzaran horiek soberan daudenik”, eranstean du adituak. Miribillako eskolak “dirua” esaten dugun tokian “euskara” jartzea du helburu, sozioekonomikoki behe-mailako geruzatan kokatutako kideei etorkizunean bestelakoetan kokatzeko abantaila eskainiz bezala.

### **13:00 | Txirrina, bazkaltzeko ordua eta agurra**

Txirrin hotsa entzun eta salto batean jaiki dira ikasleak mahaietatik. Guztia apaletan txukun jarri, etxeko lanen karpeta hartu, eta ziztu bizian atera dira ikasgelatik. Asteazkenero lez, arratsaldean jai dute.

Goizaldeko kolore grisak jada desagertu eta zeruan urdin-gune batzuk ageri dira. Eskolako patioan hainbat ikasle, guraso eta familia-kide daude. Ikasle batzuk jangelan gelditzen dira bazkaltzen; beste batzuk, berriz, etxera joaten dira. Gurasoetako batzuk elkarren artean hitz egiten dabilta, Guraso Batzordeko bilera zehaztu behar baitute arratsalderako. Miribilla eskolako Guraso Batzordea bospasei familiek osatzen dute. Euren artean bakarra da euskal hiztuna, gainontzeko guztiak marokoarrak edota ijito komunitatekoak dira. Astean behin elkartzen dira, egingo dituzten proiektuak zehaztu eta aurrera eramango dituzten borrokek zeintzuk izango diren erabakitzeko.

“Guraso Batzordeko amok gerrilla ona osatzen dugu, indartsuak eta borrokalariak gara”, dio Elixabete Garciak harro eta algara artean. Izan ere, elkarteko kide guztiak amak dira, nahiz eta joan zen ikasturteetan ijito komunitateko aita batek ere parte hartu. Alonso zuzendariak, ordea, haren jarrera figura maskulinoarena zela aitortu du, emakumeengan konfiantza falta zuela sumatzen zela gaineratuz. Miribilla eskolaren ikusgarritasuna bermatzeko asmoz, hainbat proiektu burutu dituzte orain arte Guraso Batzordeko amek. Horren erakusgarri da 2018ko maiatzean idatzitako rap abestia. Orain dela ia urtebete hasi ziren abestia idazten, errimaz–errima Hugo Estébanez Lopez musikariarekin batera osatutako rapa. Eskolaren egoeraren berri emateaz gain, bizi duten estigmatizazioa eta eskusio soziala salatzea zuten helburu abestiaren bitartez.

*Beard Skull Beats* taldeak sortutako doinuei erantsi zizkieten hitzak elkarteko kideek. Euskaraz, gazteleraz zein arabiarrez osatutako kantuan, amek egoera zein den adierazi eta azken hamahiru urtean Bilboko Udalak zein Eusko Jaurlaritzak izandako pasotismoa salatzen dute. “Protesta gisa sortu genuen rapa izan zen, udalari hemen gaudela esateko, ez gaitzela zirikatu eskatzeko”, azaldu du Garciak euren borroka anitzei buruz hitz egitean. Badirudi halako protestekin udaleko partaideak egoeraren jabe egin direla. 2018ko otsailean *Bilbao Iparraldea – Hegoaldea. Eskola Solidarioak* sariketaren zazpigarren edizioan, eskolako kideek saria jaso zuten Udalaren eskutik, *Miribilla rules* proiektuaren baitan eskolako hezkuntza komunitatearen gehiengo inplikatzeko lortu zutelako.

*II Kolore*-rekin elkarlanean egindako ekimenaren nondik norakoen berri ematen du *Miribilla Rules* dokumentalak, zenbait irakasle eta gurasoren testigantzak erabiliz. Eskolaren errealitatea ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, aurreiritziekin bukatu beharra dagoela diote irakasle zein gurasoek. “Gurasoek helburu bat lortu nahi dutenean borroka egiten dute azken punturaino, instituzioen aurrean eskola defendatzeko, beti ilusioz eta helburu bat presente izanik”, nabarmentzen du eskolako zuzendari Alonsok; abestiak dioten bezalaxe, “*Miribilla eskola, la eskola que mola! No es trola! Esto va para el Gobierno que todo lo controla!*”.

Sorkuntzaren bidez aldarrikapenak egiteaz gain, bestelako protestak ere antolatu dituzte azken urteotan. Esaterako, manifestazioak egin izan dituzte hiriaren erdiguneraino, Bilboko Udalari zein hiritarrei euren ahotsa entzun dezatela eskatuz. Izan ere, hainbat dira aurreiritziek bideratutako usteak, familia euskaldun ugaritan eragina dutenak.

Miribilla auzoan edota inguruetan bizi diren bertako hainbat familia eskolaren “beldur” direla azaldu dute Miribilla eskola osatzen duten komunitateko zenbait kidek. Seme – alabak Haur Hezkuntzan matrikulatzen badituzte ere, Lehen Hezkuntzara jauzi egitean beste ikastetxe batzuetara eramaten dituztela adierazi dute.

“Haur Eskolan euskaldun bat baino gehiago batzen dira; kontua da, Lehen Hezkuntzan euskaldun guzti horiek joan egiten direla”, dio Malaxetxeberriak nolabaiteko amorru keinuak eginez. Erabakia errespetatzen duen arren, ez duela ulertzen dio; are gehiago, familia bat baino gehiagoren erabakia denean. Garcia eta Cortesek ere ez dute familia horien erabakia partekatzen. Gizabanakoen pentsamendu eta aurreiritziak arriskutsuak direla diote, nahiz eta kultura desberdinak batzen diren espazioa izan, beste eskola batean aurki daitezkeen egoera berberak aurki daitezkeela.

Haur Hezkuntzan seme – alabak matrikulatu, baina Lehen Hezkuntzan beste ikastetxe batzuetara eramaten dituzten gurasoek euren umeak ondo daudela konturatu behar direla dio Castelok, jatorri desberdinen arteko harremanetan ere berdin – berdin egin daitezkeela aurrera gaineratuz. Egoera honen aurrean neurri zorrotzagoak ere hartu daitezkeela dio Barquinek. Esaterako, badirudi urtean zehar etortzen diren umeak beti ikastetxe berberetan jartzen direla, beraz, beste ikastetxe batzuetara bidaltzea ere interesgarria litzateke; “horiek, ordea, orain arte hartu ez diren neurri politikoak izango lirateke”, “ikastetxe horiek soilik etorkinentzat edo ijitoentzat” esatea oso itsusia dela iritziz. Horren aurrean, eskola batzuk itxi eta beste modu batean irekitzearen ideia jartzen du mahai-gainean adituak.

Miribilla auzoko familia perfila gaztea eta euskalduna dela azaltzen du Alonsok; hala ere, jendea gerturatzea lan nekeza da. Bilboko Udalean auzoko jendeak beste eskola bat jartzeko eskatu zuela ere entzun dutela adierazi du, nahiz eta auzoan jada badagoen ikastetxea. Barquinen ustetan diagnostikoa argia da: “Neurri politikoekin ez bada eragiten, hogeitau urte barru honetaz hitz egiten egongo gara. Duela hamar urte ere honetaz hitz egiten geunden, eta hitz egiten jarraitzen dugu. Areagotzen ari da eta posible da hemendik hogeitau urtera, Estatu Batuetan bezala, honetaz hitz egiten jarraitzea”.

## **Euskara, desabantailatik abantailarako pausua**

Euskalduntzearen afera medio erabakitzen omen dute familia gehienek euren seme – alabak ikastetxez aldatzea, nahiz eta biak eskola publiko eta euskaldunak izan. Familia



gazte, euskaldun eta klase ertainekoa ei da erabaki honen atzean dagoen perfila. Bada, zein da halako egoerak sortarazten dituen arrazoi nagusia?

“Gizartetik datozen arazoak dira, bai, baina hezkuntza gizartearen barru-barruko elementua da”, dio Iñaki Alonsok (Bilbo, 1974) *Save the Children Euskadi* gobernuz kanpoko erakundearen Sentsibilizazio eta Haur politiken arduradunak. “Guzti honen baitan, ez nuke esango euskararen arazoa bakarrik dagoenik; arrazakeria dago”, gaineratzen du buruarekin gora eta behera eginez Malaxetxeberriak. Familia horiek euren seme – alabek merezi duten maila akademikoa lortuko ez dutenaren beldur direla uste du Miribilla eskolako ama honek, ikastetxea ghetto bilakatzen dutenak euskaldunak direla iritziz.

**Iñaki Alonso: “Gizartetik datozen arazoak dira, bai,  
baina hezkuntza gizartearen barru – barruko  
elementua da”**

“Nire ustez imaginario kolektiboaren baitan dagoen kontua da, zeinak klase sozial zehatz batzuetako kideekin elkartzeak seme – alaben emaitzetan eragina izango duela esaten duen”, azaldu du Iñaki Alonso. Haurtzaroarekin lotutako gaiak lantzen dituen mundu mailako erakundea da *Save the children*. Pobrezia, biolentzia, immigrazioa eta jarrera desagokien lanketetan oinarritzen dira. Hezkuntzari dagokionean, ume bakoitzaren egoera oinarri, segregazio sozioekonomikoa dute aztergai bertako kideek.

Segregazio sozioekonomikoa aztertzerako orduan, ISEC1 indizea erabiltzen da. Perfil sozioekonomiko baxua duten haurren kopurua zenbatekoa den izendatzeko erabiltzen den indizea da. Ehunekoak %25 gainditzen duenean eskola batean maila baxuko umeen kontzentrazio maila altua dela esaten da; %50a gainditzen duenean, berriz, ghetto eskolez hitz egiten da. Iñaki Alonsok segregazioa eta kontzentrazioa kontzeptuak desberdintzen ditu, bata bestea eragiten duela gaineratuz. Segregazioak kontzentrazioa dakarrela dio; hau da, perfil antzekoa duten haurren akumulazioa zentro batean.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuak oinarri, eta argitaratu berri duten *Nahastu nirekin* (2018, Apirila) txostenean oinarrituz, Estatu espainoleko gainontzeko erkidegoekin alderatuz gero, EAE-ko kontzentrazio maila handia da; hain zuzen ere, %68-koa. Datuak horiek izanda ere, datu horien azpian dagoen desberdintasun egoera da Iñaki

Alonso gehien kezkatzen duena, “egoera honek munduan dagoen arazorik handiena uzten du agerian, alegia, kohesio soziala arrakalatzeko jarraitzeko arriskua; biztanleariaren talde batzuk abiadura batean garatzen ari dira eta beste batzuk beste abiadura batean”, eta horrek ez dio Euskadin dagoen gizarte kohesioa lortzeko xedea lortzea errazten. Egoera horien aurrean, *Save the Children* erakundeak hainbat proposamen egin dituzte. Izan ere, profil sozioekonomiko baxuko neska – mutilen kontzentrazioak laguntza linguistikoaren beharra eta hezkuntza – premia bereziak dituzten ikasleen presentzia handiagoa dakarrela uste dute; eskura, baliabide gutxi izaten dituztela gaineratuz.

Inklusio irizpideen arabera eskolak ixtea eta irekitzea, kontzentrazio altuko ikastetxeek plaza kopuruak murriztea, zerbitzu osagarriak funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztietan ezartzea edota kontzientziario kanpainak egitea dira haurren eskubideen alde egiten duen erakundeak eskola segregazioari aurre egiteko proposatutako irtenbideetako batzuk. “Aldaketa batzuetan behetik etorriko da; beste batzuetan, berriz, gaineratik; kasu honetan, ordea, bi norabideak beharrezkoak dira”, adierazi du Alonsok. Hori dela eta, euskal administrazio publikoaren esku hartzea beharrezkoa dela nabarmendu du, eta horretarako, egoeraren ikusgarritasuna bermatu behar dela.

Mondragon Unibertsitateko irakasleak aldiz, klasismoaren gaia ekartzen du beste behin, “nik uste dut familia euskaldunen irizpideetako bat, euskararen gaia ez ezik, ikastetxea aukeratzeko orduan, umeak norekin juntatuko diren dela”. Halere, euskarak ghettoen inguruan dauden aurreiritziak leundu ditzakeela nabarmetzen du. “Euskara, normalizazioaren bidean dago, eta eskolari inplikazio handia eskatzen zaio lagun dezan”, dio Barquinek. Bere esanetan, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa oso konplexua da, tokiaren arabera aldakorra; beraz, euskararen funtzioak eta ematen dituen aukerak desberdinak izango dira leku bakoitzean. Hala ere, euskara integratuzko tresna izan daitekeela dio behin eta berriz, zaindu behar den altxorra dela gaineratuz. Miribilla eskolako irakasleek ere garbi dute: “Euskal Herrian gaudenez, eskola honetan euskara da komunean eduki behar dugun hizkuntza”, aldarrikatzen du Izaskun Alonsok; Castelok ere, euskara integratuzko tresna izan daitekeela nabarmendu du, nahiz eta bera euskal hiztuna ez izan. “Bilbon nahi duena izango da euskalduna, apustu pertsonalarekin lotuta dago”, berresten du Olatz Malaxetxeberria gurasoak.

Nolanahi ere, oraingoz etorkin jatorridun ume asko eta asko A ereduari matrikulatzen dira Euskal Herriko zenbait hiritan; hainbaten ustetan, zailagoa da kanpotik datozen ume horiek D ereduari haztea euskararekiko duten ezjakintasuna medio. Dena dela, testuinguru honetan, Iñaki Alonsok ez ditu euskarazko ereduak eta porrota lotzen: “Nahiz eta une batean hizkuntzak eragina izan zuen hezkuntza segregazioan, gaur egun argi dago ikasleen hizkuntza tendentzia matrikulatzerakoan nondik doan”; bere ustetan B ereduari. Izan ere, *Save the Children Euskadi*-ko Sentsibilizazio eta Haur politiken arduradunaren ustetan etorkizuna, batez ere, B ereduari dago: “Haur hauek B eta D ereduari eskolaratzen ari dira. A ereduari bazterreko aukera lez gelditu da”. Barquinek eta Miribillako komunitateak aldiz, D ereduari ikusten dute etorkizuna, desabantailaz beteriko ingurune batetik datozen haurrei euskal ingurune batean murgiltzeak eranstean dizkien abantailen garrantzia azpimarratuz.

Hainbat dira familia etorkinetako seme – alabak, zeinak denboraren poderioz, Euskal Herrian bizi eta euskaldundu diren. Jose Eduardok guraso perutarra ditu; Tarek, aita marokarra eta ama bilbotarra; Yasinek, ama bilbotarra. Euskaldunak eta euskaldunak ez direnak euskalduntzen dihardu gau eta egun Miribilla eskolak, barneko mundu txiki eta anitzetik hizkuntzari eta inguruneari kolore desberdinetako zertzeladak eskaintzen. Kanpoko mundua kolore beltz, gorri eta moreko ametsekin koloreztatzen. Edozein arazoren aurrean zutik mantenduko direla aldarrikatzen. Euskara igogailu soziala izan dadin aldiz, erakunde eta komunitate gehiagoren beharra du; “denok ikasi behar dugu elkarrekin bizitzen, eskolan, etorkizuneko gizarteak eraikiko duten pertsona txikiekin”, dio Malaxetxeberriak.

Miribilla euskal eskola publikoa, anitza eta euskalduna. Euskara desabantaila baino, abantaila izan daitekeela sinesten duena, eta hala, praktikara eramaten diharduena. Egunetik egunera, euskal hizkuntza aberastasun immateriala bihurtzen duena.

## 2. Zatidurak

**Glosarioa – Errealitate anitza ezagutzeko gida**

**Kontzeptu hauek Harluxet Hiztegi Entziklopedikotik hartu eta moldatuak izan dira, lehenengoa izan ezik:**

**Aporofobia:** Pobre edo behartsuenganako fobia (Espainiako Errege Akademia/Real Academia Española).

**Arraza:** Bizidun – espezie bateko azpitaldea, ondoretasunezko bereizgarri orokor berak dituzten banakoez osatua. Adibidez, giza arraza, gizakien arraza bakarra.

**Arrazakeria:** Gizaki taldeen artean arraza desberdinak eta euren arteko hierarkia existitzen direla baieztatzen duen pentsamendua. Giza – talde jakin batzueganako aurkakotasun sistematikoa.

**Errefuxiatu:** Gerra, politika, erlijio edo bestelako arrazoiak medio, bere herrialdea utzi eta beste batera ihes egitera behartua izan den pertsona.

**Etnia:** Familia, ekonomi eta gizarte – egituraketa homogeneoa izanik, kultura, hizkuntza eta talde – kontzientzian oinarritutako batasuna duen gizabanakoen multzoa.

**Etorkin:** Bertakoen ikuspegitik, kanpotik datorren pertsona; bereziki, lan arazoengatik berea ez den herri batera bizitzera doana.

**Klasismo:** Klase sozial batek beste batekiko duen diskriminazio jarrera edo praktika.

**Migratzaile:** Migratzen duena.

**Migrazio:** Pertsona edo giza talde bat herrialde batetik bestera bertan finkatzeko asmoz joatea, bereziki arrazoi ekonomiko eta soziala direla medio .

**Segregazioa:** Komunitate bateko talde batetik, bere etnia, kultura, hizkuntza, egoera sozial, egoera ekonomiko, sexu edo erlijioaren arabera, gizartean hainbat espazioetatik baztertzeko prozesu sistematikoa.

## **Gasteizko Manifestua**

2016ko otsailean Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Manifestua aurkeztu zuten Gasteizen bertako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako guraso batzorde, sindikatu eta etorkinen zenbait gizarte eragilek. Hiriko hainbat eskoletan jatorriak sortutako segregazioa salatzeaz gain, hezkuntza inklusiboaren alde borrokatzeko dei egin zuten.

Gasteizko ikastetxeetako errealitatea dute oinarri manifestuan. Azken urteotan, jatorri atzerritarreko ikasleak jasotzen dituen sarea publikoa den bitartean, itunpeko sarea bertako maila ertaineko edo altuko familia askoren aterpe bihurtzen ari dela salatzen dute sinatzaileek, Gasteizko errealitate sozialari bizkarra ematen diotenak hainbat direla gaineratuz. Hezkuntza Sailaren, Gasteizko Udalaren eta administrazioen interes falta salatzen dute idatzian, errealitatearen jabe izanda ere, egoerari aurre egiteko baliabideak eskaintzen ez dituztela nabarmenduz.

Halako kasuei bestelako ikuspegi batetik begiratu eta guztientzako izango den hezkuntzaren alde egiteko (hots, hezkuntza inklusiboa), egoera zehatzei aurre egiteko proposamenak egiten dituzte manifestuan.

Ikastetxeetan epez kanpo eskolan hasten diren ikasle gehienak Gasteizko eskola publikoetara bideratzen dituztela diote manifestuan; beraz, eskolaratzerako orduan zenbait puntu proposatzen dituzte. Besteak beste, eskolaratze batzordean orain arte kanpoan gelditu diren eragile hezitzaile batzuk egotea; hala nola, familien ordezkariak eta sindikatuak.

Horrez gain, jatorri bera duten ikasleen kontzentrazioa saihesteko ere proposamenak egiten dituzte. Ikastetxeetan maila sozioekonomiko desberdina duten familiak elkartzeaz gain, behar gehiago dituzten zentzoei baliabide gehiago ematea edota guztiena izango den eskola publikoa bermatzeko, hezkuntza eragile eta erakundeen artean sortutako plan estrategiko baten aldeko aldarria egiten dute.

Ikastetxeetako segregazioaz hitz egiten denean, ez gara kasu isolatuez ari, eta jatorri zein kultura anitzetako haurrak gure gizartearen parte barneratzen goazen heinean, gizartearen beraren garapena bizkortzen egongo garenaren ikuspegia zabaltzea da honelako manifestuen helburua. Alegia, ezagutza eta praktika mailan abiadura

desberdinetan hazten doazen haurrak hezi beharrean, abiadura berean eta elkartasunean hazten den komunitatea sortzearen aldeko aldarria.

## **Kolore guztietako Euskal Herri baten hezte**

Espainiako eskualde askotatik hainbat biztanle bertaratu ziren 50 eta 60. hamarkadatan, besteak beste Euskal Herrian bizi genuen industrializazioak eskainitako lanetan beharra lortzeko asmoz. Baliteke Errenteria, Beasain edo Portugaleteko gure bizilagunen gurasoak Murziakoak, Cordoba edo Extremadurakoak izatea. 1975ran Euskal Herritarren artean 3tik 1 Euskal Herritik kanpoan jaiotakoa zen.

“Herri honetan sustraitze asmatzeagatik / neuk’e maita dezaket guztien gainetik” kantatu zuen Jon Maiak 1997ko abenduaren 14an Donostian, ama Extremadurakoa eta aita Zamorakoa izanik. XXI. mendeko Euskal Herrian Uyuni, Rabat edo Aljerreko biztanleak ditugu etorriak; batzuk, etorritakoen seme-alabak, boliviarr-euskaldunak, marokoar-euskaldunak, arabiar - euskaldunak. Euskal gizarteko bizilagunen abiaduran txertatzeko gogoz.

Goitik hasi eta ezkerreko argazkian Tarek, Marwa eta Cheikh matematiketako ariketa batean elkarri laguntzen (1); honen azpian berriz, euskarazko ipuinez hornitutako liburutegia, ikasleek irakur dezaten (2); ezkerretik hasi eta lehenengoan, 1D ikasgelako ikasleek Natur Zientzietan eginiko ariketak (3); ariketen argazkiaren azpian, hazi bat nola landatuko duten hausnartzen praktiketako irakaslearekin batera (4); azkenik, eskuineko zutabeko azken argazkian, arduradunak egunero jarraitu beharreko puntuen panelak (5).

# Miribilla Eskola Publikoa | Analisia puntuka

**Kokapena:** Vitoria-Gasteiz Kalea, 5, 48003 Bilbo, Bizkaia

**Sorrera urtea:** 2005eko uztailaren 5a


**Zuzendaria:** Izaskun Alonso

**Irakasle kopurua:** 43 ikasle


**Ikasle kopurua:** 270 irakasle

## Ikasleak: maila eta hizkuntza ereduak

### Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



### A eta D ereduak



## Ikasleak mailaka eta ereduak

